



# NOLA EGIN KLIPMETRAJE BAT

## **Osagaiak:**

- *Benetako superheroiei zuzendutako dei urgentea* posterra.
- Klipmetrajeen webgunea: [www.klipmetrajesmanosunidas.org](http://www.klipmetrajesmanosunidas.org)

## **Aurretiazko oharra:**


- Garrantzitsua: gela bakoitzak nahi adina klipmetraje aurkez ditzake.
- Sartu klipmetrajeen webgunean, ikasleek klipmetrajeen adibideak ikus ditzaten eta VII. edizio honi buruzko informazio zabala eskura dezaten.
- Animatu ikasleak elikagaiak alferrik botatzeak eragiten duen injustizia klipmetraje baten bidez salatzea.
- Gogoratu benetako superheroien eginkizuna zein den: besteei entzutea eta laguntzea, gure eskubideak defendatzea eta injustiziak salatzea. Horretarako, superheroiek tresna berezi batzuk dauzkate. Esteka honetan aurkituko dituzue: **benetako superheroien tresnak**.
- Klipmetrajea egiteko orduan, alderdi batzuk garbi izan behar dituzte:
  - Inplikatu egin behar dira proiektuan. Oso lan garrantzitsua da elikagaiak alferrik botatzeak eragiten duen injustizia salatzea.
  - Proiektuak helburua ondo bete dezan, mezuak argia izan behar du, eta bihotzera heltzeko modukoa.

## **Prestaera:**

- Jarri posterra ikasgelan ondo ikusteko moduko leku batean, eta puntuz puntu errepasatu.

## **Argiak!**

- Gidoia lantzeko ideiak sortzeko, egokia izan daiteke ikasleak taldetan banatzea, denek izan dezaten ekarpenak egiteko aukera.
- Gidoia lantzeko ideiak 3. jardueran sortutako titularretatik atera ditzakete, edota 6. jarduerako konpromiso-ekintzetatik.
- Fase honetan, benetako superheroien tresna batzuk erabil ditzakete. Banan-banan irakurri eta azalpenak eman,



lagungarriak izan baitaitezke gidoia idazteko. Arreta eskaini Ikusmen bereziari:

- «Behartsuak ere ekintzaileak, ausartak eta bizkorrak direla ikusteko». Askotan, inolako ekimenik gabeko pertsona pasibo gisa islatzen ditugu behartsuak: hori ez da zuzena. Ideia hori sendotzeko, lagungarria izan daiteke **Beste inortxo ere ez** kontakizuna irakurtzea.
- «Gogoan izan helburua Justizia defendatzea dela, ez limosna ematea». Aintzat hartu beharrekoa da hori, gidoia lantzeko orduan. Elikatzea eskubide bat da; munduan ezin dira pertsona batzuk besteoi «sobratzen» zaigunarekin bizi.

### **Kamera!**

- Aurreko fasean bezala, irakurri benetako superheroiek zein tresna dauzkaten.
- Fase hau funtsezkoa da: ikasleek egindako klipmetrajeak izango dira horren fruitu.

### **Ekin!**

- Azken fasea da hau, baina ez aurrekoak baino garrantzi gutxiagokoa. Benetako superheroien funtsezko tresnetako bat jasotzen du: «indar mobilizatzailea». Indar horri esker, bakarka aritu beharrean, beste pertsona batzuekin batera elkarlanean aritzen da, eta, horrela, jende gehiago sentsibilizatzea eta inplikatzeko lortzen da.